


BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Enpresa bat zabaldu eta aurrera eramateko gauza ezinbestekoa bezero berriak lortzea da. Guk enpresa sortu berri izango dugunez, hainbat eretara bezero berriak lortzen saiatuko gara. Gainera, bezeroren batek edozein motako zalantza bat izango balu, gurekin harremanetan jartzeko aukera izango luke. Aukera bat sare sozialen bidez izango litzateke eta bestea aldiz, mugikorraren bidez (gmail korreo elektronikoa, WhatsApp, deien bidez...). Guretzat, bezeroen ongizatea oso garrantzitsua da, eta horregatik, lasaitasun osoz guri edozein zalantza galdetzeko eskatzen dizuegu.


Lehenik eta behin bezero berriak lortzeko hainbat mugimendu egingo ditugu. Lehenik, Urretxu-Zumarragako dendetara joango gara gure proiektuaren berri ematera eta beraien zalantzak argitzea, bertan proiektuarekin bat egiteko aukera emango diegu. Horrez gain, herrian zehar hainbat poster jarriko ditugu gure produktuaren ideia zabaltzen joan dadin.



Horrez gain, edozein bezerok kritika bat egin nahiko balu, guk eskuzabalik hartuko genuke. Honelakoak ezinbestekoak direla pentsatzen dugu, gure proiektuaren ahulguneak indartzeko eta eduki ditzakegun arazoak konpontzeko. Edonork honelakoak egin nahiko balitu, instagrameko kontuko biografian txertatuta izango dugun inkesta betetzea eskertuko genizueke. Bertan dena ondo azalduta egongo denez, bezeroak zalantzak izango ez dituztela espero dugu.



Banaketa arduratuko diren langileak bezeroekin aurrez aurreko harremana izango dute. Langile hauek zintzotasun osoz jokatu dute beti. Era honetara gure enpresaren berri izango dutenak gure jarrera onaren berri izango dute.



Gure webgunean erosketak egiterako garaian, 16 urte baino gehiago izan behar dira, izan ere, online erosketak egiterako garaian kreditu-txartela behar da. Bezeroak 16 urte baino gutxiago izango balitu, bere guraso edo tutore legalarekin egin beharko litzuke erosketak.

Bezeroekiko harremana mantentzeko erabiliko dugun hizkuntza erabat garrantzitsua da, izan ere hizkuntza da komunikatzeko dugun gaitasun handiena. Guk erabiliko dugun lehendabiziko hizkuntza euskara izango da, euskara bultzatu nahi dugulako eta herrian duen garrantzia hareagotzea nahi dugulako. Horrez gain, dende euskara hitz egirtego edo ulertzeko zailtasunak izango balituzte gazteleraz komunikatuko ginateke.

